

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko irailaren 27an bildu dira euskaltzain osoak hileroko batzarrea egiteko. Goizeko hamarretatik eta erdietan honako jaun hauek etorri dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariordea eta J.J. Zearreta Ekonomi-eragilea, urgazleak.

X. Diharce jaunak ezin etorria adierazi du.

Uztaileko batzar-agiria onartu da.

Aita Lino Akesolo euskaltzain urgazlearen hil-berria eman du euskaltzainburuak. Patxi Uribarrenek egingo du hurrengo batean bere merezimenduen aipamena.

Burtsa-hiztegia

Burtsa-hiztegiari buruz batzordeñoako lau partaideek egindako proposamenak aurkeztu ditu elkarrekin parekatuz J.A. Arana Martija arduradunak. Zerrenda horietako hitzak izenburu bezala ontzat eman arren, izen sintagma mailan nola erabili behar diren ez dela esaten, aditzera eman du P. Salaburu jaunak. Euskaltzaindiak ezin ditu izen guztiak berrikusi, hitz batzuen esanahia ezagutzen ez duelako, besteak beste. Batzordeñoak espezialista batekin denon iritzia bateratzea eskatu du batzarrean, eta beraien ustez duda-mudakoak diren hitzak ikusiko dira euskaltzainen artean.

Batzordeñoa bildu aurretik bilduma honen kopia bidaliko diola bakoitzari, esan du J.A. Arana Martiak.

Hiztegi gintzako batzordeen izenean jardunaldi batzuk egitea proposatu du I. Sarasolak. Hiru lantalde dira programa desberdinekin hiztegi gintza lanetan ari direnak, OEH, EEBS eta LEF, alegia, eta gai batzuk lantzea merezi lukeela, euskal hitz-aitxorrari dagozkion puntuetan zenbait erabaki hartzen ari denez Euskaltzaindia. Erakunde batek edo bestek eskatutako hitz-zerrendeak banaka edo

multzoka erantzuten jarraitzeak eragozpenak sor ditzakeela batzordeen proposamenak zertan diren jakin gabe.

Arazoaren 28an bildu eta egun osoa gai hauentzat ematea onartu da. Biharamonean egingo da hileroko batzarrea.

Euskara Batuko batzardea

Idazkitan lerroz aldatzean marratxoien erabilera zehazten duen proposamena aurkeztu du Euskara Batuko batzardeak. Hiru gutun jaso dira oharrekin. Batzardearen ekintzan interesatuak direla erantzun dutenen izenak ere aipatu dira eta proposamenak bidaliko zaizkie euskaltzainei bezala.

Egungo erabakigaiari dagokionez, hitz-elkartuen arazoa ez da ukitzen LEF batzardearen ondorio eta erabakigaiak ez baldintzatzeko. Proposamena eztabaidatu ondoren, lerro amaierako hitzak morfemaka ez baino silabaka banatzea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

Egoitza eta ikurra

Bilboko egoitzako lanen berri eman du J.A. Arana Martijak. Altzariak jarrita egongo omen dira Biltzarra hasiko den urriaren 21erako. Liburuak ere aldatu-rik daudela dio, eta telefonoari buruz, 4158371 zenbakiduna ezarria da oraingoz egoitzan.

Ekaineko batzarrean hartutako erabakiaren ildotik, 1921eko ikurra egokitu du David Abajo jaunak aurrerantzean Euskaltzaindiaren logotipo ofiziala izan dadin. Apainketa guztien berri eman du inprimaki bakoitzaren ereduak azalduz Guezalaren diseinu zaharrak hobekuntza nabarmena lortu du jatorrizko itxura aldatu gabe. Batzarreak ontzat eman du aurkezlearen lana.

Eskuartekoak

Eusko Jaurlearitzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro saileko Arkitektura zuzendaria den Juan Ignazio Lasagabaster jaunak bere arloko hiztegi eta datuen altxor informatizatu baten beharra agertzen du gutun baten bidez.

E. Knörr jaunak erantzun dio, baina informazioaren gehigarri, duela zenbait urte Euskaltzaindiak bildutako etxegintza-hiztegiaren berri ematea erabaki da.

Juduak Espainiatik lekutuak izan zireneko V. mendeurren honetan, semitismoak hebraieraren aldetik nahiz arabierarenetik euskarari izandako eragina aztertzea proposatzen du Alberto Garatek idazki baten bidez. Euskaltzaindiaren egitekoa baino gehiago, tesi lana dela esan da. Horrela erantzungo zaio A. Garate jaunari.

Barcelonako Unibertsitateak eleanizdun herri eta estatuei buruzko simposiuma iragarri du “Estat i població plurilingüe” izenburuarekin, datorren abendura-ko. I. Sarasola izendatu du Euskaltzaindiak bere ordezkari.

Amerikara iristearen V. mendeurreneko ekintzen barnean Terminologiari buruzko III. Simposiuma egin gogo da 1992ko azaroan, Palma de Mallorca-n, eta ohorezko batzordean agertzeko gomita bidali diote euskaltzainburuari. Onartzen duela erantzungo zaie antolatzaileei.

“Association Internationale d'Études Occitanes” izeneko elkarteak hizkuntza horri buruzko IV. Kongresua egin nahi du Gasteizen 1993ko abuztuan, eta Euskaltzaindiaren babes zientifiko eta morala eskatzen du.

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

BATZAR OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1991.eko irailaren 27an, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoien, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzainak; J.A. Arkotxa, R. Badiola, J.M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, M.^a P. Lasarte, J.L. Lizundia, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak, P. Uribarren jaunak Lino Akesolo Olibares euskaltzain urgazlearen heriotzearen albistearen ematen duen gutuna irakurriz hasten du batzarrea, euskal lanentzat izan den galera aitortuz eta azpimarratuz. P. Uribarren bera izendatzen da hurrengo bilkura batetan urgazle zendu berriari buruzko hil-berri txostena egiteko.

Goizeko bilkuraren berri.

J.M. Satrustegi idazkariak goizeko bilkuraren laburpena ematen du, gai hauek azpimarra daitezkeelarik: Burtsa-hiztegiari buruz, horretarako izendaturiko batzordeñoaren emaitza aztertu da; Euskara Batuko batzordeak aurkeztutako “marra-txoak lerroz aldatzea nola idatzi behar den” gomendio-araua onartu da; Eusko Jaurlaritzako Arkitektura zuzendariak Etxegintza Hiztegiaren proposamena ikusi da, arkitekturakoa landu zela aditzera emanez; semitismoak euskarari ikertzeari buruzko proposamenaz hitz egin da; Euskaltzaindiaren logotipo berria zehaztu eta onartu da; azkenik, zenbait simposium eta kongresuren albiste eman da.

J.A. Arana Martija eta J.L. Lizundiak, Bilboko Plaza Barrian, urriaren 21ean, egoitza inauguratuko dela eta argitasun zenbait ematen dituzte. Baita ere Nazioarteko Dialektologia Biltzarraren xehetasunak.

“Fray Juan Ajuriaren idazlanak” izeneko txostena irakurtzen du F. Ondarra euskaltzainak. Txostengileak Juan Ajuria predikariaren zenbait testu aztertu eta ikertu ditu, hala nola, haren bizitza eta lana. Bestalde arakaturiko testuei oharrak egin dizkie eta baita hiztegia, adiztegia eta garaiko hizkuntzaren berezitasunak miatu eta nabarmendu ere.

“Baztango hizkeraz ohar batzuk” izeneko txostena, euskaltzainei dagokion txandakoa hain zuzen, irakurri du P. Salaburu jaunak. Baztan aldean azken urteotan bilduriko zenbait esaera eta hitzen berri eman du. Lekukotasun ugari ageri da hor, euskalki honen ezaugarritzat hartzen direnak. Txosten hau amaitzean, aurrekoan bezalaxe, elkarriketa aberasgarria izan dute batzarkideek.

Eta besterik gabe amaitzen da arratsaldeko batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
idazkaria